

Marmari

7. alea / 2003ko ekaina

Leitzako aldizkari gaztea

Leitzatik Leitzara

- Mendibil mendi taldea
- Leiztegia
- Suhiltzaileak
- Leitzan, euskaldunon artean erdaraz?
- Leitzako krosa
- ...



ale honetan:



3. or. Editoriala.

4-6. or. Mendibil mendi taldea.

7-9. or. Leiztegia.

10-11. or. Bitxikeria.

12-13. or. Suhiltzaileak.


14-18. or. Leitzan, euskaldunen artean erdaraz?

19. or. Ezetz asmatu.

20-22. or. Elkarrizketa.

23-26. or. Leitzako krosa.

27. or. Txistek eta Eroskopoia.



Leitzatik

Leitzara

m ARMARIren 7. zenbakia. Hasieran etorkizuna garbi ez zegoen arren, ikusten denez aldizkariak bere martxa hartu du eta urtean bi aldiz gure artera agertzeko konpromisoa betetzen ari da. Makina bat kontu bildu ditu dagoeneko argitaratutako zenbakietan, eta beste zenbait ekarri ditu zazpigarren honek ere. Leitzako aldizkaria izaki, eta nagusiki Leitzako gaiak aztertzen direnez, logikoa da bertakoek ere gogoz eta gustura hartzea, nekez aurkitu baitaitezke bestela bertako gaiak jorratuko dituzten argitalpenak.

Oraingo ale honetan ere saiatu gara Leitzako bizitzako alor ezberdinak jorratzen. Besteak beste, herriko bizitzan parte hartzen duten bi talderen berri eman nahi izan dugu. Batetik, Leitzako suhiltzaileak. Zerbitzu garrantzitsua ematen dute eta, benetan, meritu handia dute, boluntarioak baitira. Bestalde, Leitzako Mendibil mendi taldea dugu. Azkeneko urteotan hainbat irteera eta ekintza anto-

latu ditu, eta lan horren guztiaren berri eman nahi izan dugu.

Taldez gainera, pertsonak ere baditugu zenbaki honetan. Hain zuzen, kanpogan ikasten ari diren gazte batzuen iritziak eta esperientzia jaso nahi izan dugu. Bizitzako fase jakin batean daudenak dira eta, zalantzarik gabe, bizitzako momentu interesgarria bizitzen ari direnak. Horietako batzuk hautatu ditugu, baina asko dira egoera beretsuan dauden eta laster egonen diren leitzarrak.

Pertsonak dira, baita ere, eta leitzarrak, “Leitzako Krosa” kronikan agertzen direnak. Leitzar ugari, denak 2003ko krosa bukatzeko ahalegin betean. Atal horretan argazki ugari aurkituko duzu, denak ere ahalegin horren erakusgarri.

Hizkuntzari ere erreparatu diogu, jakina, eta bi atal gorde dizkiogu. “Leitzan, euskaldunon artean erdaraz?” izeneko artikuluan, gure artean arrunta den fenomenoaz aztertu nahi izan dugu. Gu,

behintzat, euskaltzale garenez, kezkatuta gaude gai horrekin. Baina ez dadila kezka inozentea izan, gutxienez. Gauzak nolatsu gertatzen diren badakigu, oraingoan saiatu gara zergatik gertatzen diren azaltzen.

Bestalde, 2000ko Plazaola aldizkarian argitaratutako LEIZTEGIAREN bigarren zatia daukazu ale honetan. Leitzako hiztegi alternatiboaren bigarren zatia, alegia, etimologiak barne.

Eta geure buruari ere begiratu nahi izan diogu, *MARMARI*ri alegia, eta munduan bakarrak ez garela deskubritu dugu. Hau da, *MARMARI* gehiago ere bada Euskal Herritik kanpo, nahiz eta oso bestelakoak izan. Begira ezazu, bestela, “bitxikeriak” atalean.

Eta horretaz gain, ohiko atalak ere badituzu: *ezetz asmatu, pertsonai ezkutu, eta zuk zer diozu?, denbora-pasak...* Espero dezagun, irakurle, Leitzaz zertxobait ikasteko lagungarri izan dadin, eta baita entretenigarria eta dibertigarria ere.

Mendibil

mendi taldea

Inguru menditsua da gurea, bistan denez. Mendia, kirol-zaletasun bihurtu baino lehen, ogibide, bizitoki, lantoki... izan zen gure aurrekoentzat eta baita gutako batzuentzat ere. Baina gaur egun, besteak beste, hainbat leitzarren zaletasuna da. Ordu batzuk libratu orduko mendira abiatzen denik bada, eta baita asteburutan parranda edo lo egitea alde batera utzita goizean goiz mendian ibiltzea nahiago duen askotxo ere.

Mendizale askori, gainera, mendira lagunekin joatea ere gustatzen zaie eta noiznahi ikusten dira mendizale taldeak han eta hemen, mendian gora eta behe-ra. Zaletasun horrek eta lagunartean mendian ibiltzeko gogoak eraginda, eta herrian mendizaletasuna lagundu eta indartu nahiak bultzatuta, zenbait men-

dizalek MENDIBIL mendi taldea sortu zuen duela urte gutxi batzuk. Lehendik ere Leitzan bazegoen nolabaiteko tradizio txoa mendi-irteerak antolatzeko, baina oraingoan talde sendoagoa eta iraunkorxeagoa eratzeko ahalegina egin da. Beti ere, inongo markarik hausteko pretentsiorik gabe, talde xumea baita MENDIBIL.

Esan bezala, 1998 urtean zenbait mendizale bildu eta taldea antolatzen hasi zen. Bazkide kanpaina egin ondoren, eta egitarau bat prestatuta, Mendibil taldearen ibilbideari hasiera eman zioten. Taldea, hala ere, nahiz eta funtzionamendu autonomoa eta bere batzar eta erabakigune propioa izan, Aurrera Elkarteko atal bat da, pilota eta futbola diren bezala. Estatutuak, beraz, Aurrera Elkartearnak dira.

Taldearen jardura nagusia, jakina, mendi-irteerak dira, baina horretaz gain bestelakoak ere antolatu ditu, eta horixe da artikulutxo honetan erakutsi nahi izan dizueguna, taldearen gaineko beste zenbait datu eta argazkirekin batera.

Taldearen sorrera: 1999

Taldearen izena: MENDIBIL

Bazkide kopurua: 50

Hileko kuota: 3 €

Egoitza: Aurrera elkarte

Antolakuntza: Batzar orokorra (urtean behin) eta batzordea

IZENA ETA LOGOTIPOA

Taldearen izena eta logotipoa erabakitzeke lehiaketa bat antolatu zen eta aurkeztutako hamar proposamenetatik Juan Martin Maritorenak, "Uxual"ek, eginda-





Haurrentzat antolatutako irteera bat, Plazaolako trenbidean. 2000ko iraila.



Mendibil taldearen irteera Leitzalarrean. 2000ko ilbeltza

koak irabazi zuen. Logotipoan Leitzako mapa ikus daiteke, tikuharri bat, armarriko otsoa eta, ohiko haritza egoten den tokian, piolet bat. Jakina da Mendibil Leitzako mendi baten izena dela, eta bertan trikuharri edo dolmen ezagun bat dagoela.

JARDUERAK

MENDIBIL mendi taldeak bere ibilbidean egin dituen jarduera nagusiak, laburbilduta, hauetxek dira:

Mendi-irteerak:

Urte hasieran hilez hileko egitarau bat prestatzen da, eta hilean behin irteera bat egiten da. Normalean Euskal Herriko lurralde ezberdinak bisitatzeko ahalgina egiten da, eta baita Hueskako Pirinioetan ibilaldi bat edo bi egiteko ere. Egutegi hori, hala ere, eguraldia dela-eta, edo bestelako arrazoiak direla-eta, alda daiteke eta aldatzen da.

Irteerak irekiak dira eta ez dago bazkide izan beharrik bertan parte hartzeko. Talde handi samarra bilduz gero autobusez egiten da irteera eta behar adina jende biltzen ez bada, berriz, kotxez egiten da joan-etorria. Politena, zantzarik gabe, eta beti nahi izaten dena, koadrilla handia bildu eta autobusez joatea da; horrek, gainera, zeharkaldiak

“Hilean behin mendi-irteera antolatzen da. Irteerak irekiak dira eta ez dago bazkide izan beharrik bertan parte hartzeko.”

egiteko aukera, toki batean hasi eta beste batean bukatzeko aukera ematen du, kotxez nekez egin daitekeena. Eguraldia ezin ziurta daitekeen arren, giroa, talde txikia edo handia izan, beti izaten da ona.

Hau da azken urteotan egindako irteeren zerrenda (ez dira den-denak, baina bai gehienak) :

Mendibil, Aizkorri, Bisaurin, Santa Grazi-Belagua, Adi, Izaga, Valderejo, Kodes-Ioar, Jaizkibel, Anboto, Ergako Trinitatea, Uitz-Gorriti-Areso, Altzegi-Urepel, Larrun, Sara-Atxuri-Zugarra-murdi, Zuriza-Tatxera, Bardea Beltza, Bardea Txuria, Iparla, Atxerito, Hiru Erregeen Mahaia, Toloño, Bidarra (urkirolak), Urdaibai, Altzegi-Urepel, Guratz, Urto-Mandoegi-Goizueta, Iparla, Nerbioi ibaiaren iturburua

Haurrentzako irteerak: Guratz, Altze-gi, Kornieta, Plazaola (bizikletaz), Eguzkizko Muñoa

Argazkigintza ikastaroa

Pako Zufiarrek emana, argazkigintza ikastaroa antolatu zuen Mendibilek eta 15 lagun inguruk parte hartu zuen, taldeko bazkideak eta bazkide ez zirenak. Argazkigintzaren oinarriko urratsak azaldu eta erakutsi ziren bertan, hastan ikastaroa alegia.

Argazki lehiaketa

Dagoeneko bi aldiz egin da eta bietan ere arrakasta handia eta erantzun polita izan du. 15 inguru izan dira bi edizioetan parte hartu zutenak eta guztira 40 inguru argazki bildu ziren bakoitzean. Argazkiak, gainera, erakusgai jarri ziren edonork kaletik ikusteko moduan eta, epai-mahaiak emandako sariez gain, herri bozketa ere antolatu eta egin zen.

Ikastaroak

Bi alpinismo-ikastaro antolatu dira, Gipuzkoako eta Nafarroako federazioen egitarauaren barruan. Lehendabizikoa irekia izan zen eta bi pertsonak eman zuten izena. Bigarrena, berriz, taldeetako arduradunentzako ikastaroa zen eta horretara ere beste bi lagun agertu ziren.

Proiekzioak eta hitzaldiak

Urteotan zenbait hitzaldi antolatu da, normalean diapositibak lagunduta. Hauek izan dira:

- Mendibil taldea: "Mendibil taldearen urte osoko irteerak"
- Iñaki Kanpion: "Ipar eta Hego Amerika: eskalada, alpinismoa, bidaia..."
- Bortzirietako espedizioa Gasherburm II-ra
- Andoni Areizaga: "Nepal"
- Juanito Saralegi: "Pumori"
- Eneko Pou: "Acción Directe-tik Kanadara"
- Belen Gorrotxategi: "Mendiko eskia: Alpeak eta Pirinioak"
- Juan Mari Ansa: "Adarra-Mandoegi"
- Parke eolikoaren inguruko hitzaldia

Federatu txartela

Mendi taldeak bazkideentzat eta baita bazkide ez direnentzat ere mendiko federatu txartela eskuratzeko tramitazioa egiten du urte bukaeran. Bazkideari datuak eta ordaindu beharrekoa hartu eta Nafarroako federazioarekin txartela tramitatzen da, ondoren banatzeko.



Aizkorriko bidean

Materiala

Zenbait irteera eta jarduera egiteko garaian material teknikoa behar izaten dela ikusirik, eta askotan mendizale arruntak material hori eskuratzetik ez duela ohartuta, taldeak mendiko materiala erostea erabaki zuen: soka, kranpoiak, pioletak, eskalatzeko materiala... Material hori bazkideek erabil dezakete, horretarako arduradunari eskatu eta izena eta hartzen den data apuntatuz.

Hauxe duzue, beraz, MENDIBIL taldeaz esan litekeena, laburbilduta. Talde irekia da, edonor izan daiteke bazkide, eta edonork parte har dezake urtean zehar egiten diren irteeretan, jardueretan eta lanetan. Bertara hurbiltzen denak, mendiko proiektu eta jarduera ikaragarri eta goi-mailakorik ez du aurkituko, baina Euskal Herriko mendietan barna ibiltzeko aukera eta giro ona eta atsegina bai.



Altzegi. 2001eko ilbeltza

LEIZTEGIA II

Hemen duzu, irakurle, LEIZTEGIAren bigarren zatia. Leiztegia, Leitzako hiztegi alternatiboa da. Lehendabiziko zatia duela hiru urte argitaratu zen Plazaola aldizkarian, eta bigarren hau, berriz, *MARMARI* aldizkarian. Baina bietan helburu bera duzu: Leitzako euskarak sortu baina hiztegi ofizialtan jasotzen ez diren hitzak biltzea.

Hitz hauek, normalean, hiztegi arrunteko hitzen gainean sortu dira. Alegia, hitz “arrunt” horiek izaten dira abiapuntu. Oraingoan, euskaldunok hitzen jatorria ezagutzeko dugun zaletasuna kontuan hartuta, Leiztegiko hitz bakoitzaren abiapuntua zein den zehazten saiatuko gara. Beraz, kontzeptuaren definizioaren ondoren, gure ustez nondik sortu den edo zer hitzetik heldu den aipatuko dugu. Adibidez, “Arkupel” hitzaren jatorria zein den azaltzeko, *Jat.(jatorria): Arkupeak + kupel* idatziko dugu.

Honatx, besterik gabe, Leiztegiaren bigarren zatia:

Abazabal: Leitzako kale baten izena. Auzo lasaia izaki, bertakoak oso lotiak dira eta egun osoa ezin esnatuz egoten ohi dira, aho zabalka. *Jat.: Amazabal + ahozabal*

Abeltzale: Abel Barriolaren jarraitzaile abertzaleak. *Jat.: Abel + abertzalea*

Aizkolarria: aizkora-probak beti arnasteka eta ezinean bukatzen dituen aizkolaria. *Jat.: aizkolaria + larria*

Algaiteroa: Galiziatik etorritako albaite-roa, abereak gaitaren soinuaz sendatzen dituen. *Jat.: albaite-roa + gaiteroa*

Altaboza: altan dagoen pertsonaren boz ozen eta zaratatsua, inguruko arreta pizteko helburua duena. *Jat.: alta + boza*

Arkupel: jubilatuen Arkupeak elkartearen sekzioa, sagardotegietara irteerak antolatzeaz arduratzen dena. *Jat.: Arkupeak + kupel*

Arrosaurioa: pertsona oso-oso-oso zaharrek errezatzen duten arrosarioa. *Jat.: arrosarioa + saurioa*

Aurrelarria, atzelarria: dantzarien sokako bi muturretan jarri baina beren egitekoa oso ongi zein den ez dakiten dantzari larrituak. *Jat.: aurrelari, atzelari + larria*

Baldaroka: pertsona baldarra aldaroka dabilenean. *Jat.: baldar + aldaroka*

Barrikola: Abel Barriolaren jarraitzaileek edaten duten konbinatua. *Jat.: Barriola + kola*

Belarri-kirola: kotilleoa. *Jat.: belarri + harri-kirola*

Bio-mon: juerga handia egin dugunean, biharamuneko ajea eta bestondoa gainditzeko hartzen dugun elikagai biologiko indargarria. *Jat.: bio + biamon*

Bixkia: whyski gehiegi edatearen ondorioz, gure solaskide edo lagunari ondoan ikusten diogun anai edo arreba bikia. *Jat.: bixkia + whyskia*

Busting: salda ogiaz bustitzeko kirola. *Jat.: busti + ing*

Danbolin: danborradako danbor hots errepikakorrek edo gau osoko bakailu-soinuak sor dezakeen buruko mina ezabatze botika. *Jat.: danbolin*

Demograzia: Euskal Herrian demokraziak azken boladan hartu duen izena, bertan demokrazia dagoela esatea txiste hutsa baita. *Jat.: demokrazia + grazia*



lelaldin: “Mesedez, baju xamar nago, ielaldin pixka bat emanen didazu?”

Diosala: Leitzara etortzen diren sahararren agurra. *Jat.: Dios + Ala*

Ekulluska: etxekoekin hasarretu garela-ko edo auskalo zergatik, ekulluan egiten dugun kuluska. *Jat.: ekullu + kuluska*

Errekzioa: berotzearen berotzez, erretzerainoko erekzioa. *Jat.: erre + erekzioa*

Erretolik: Aurrera futbol taldearen azkeneko fitxajea. Jokalari poloniarra, jenio bizikoa, partida guztietan erretolika betean aritzen dena. *Jat.: erretolika*

Espa-dantza: amorrazioz dantzatzeko den ezpata-dantza. *Jat.: espa + ezpata-dantza*

Frakestu: fraka-jantzi estua janzteagatik trakets sentitzea. *Jat.: frak + trakestu*

Gaberdina: gauerdian janzteko gabardina. *Jat.: gaberdia + gabardina*

Gerri-kirolak: gerriak bortizki samar behartzen dituzten herri-kirolak: harri-jasotzea, ingudea... *Jat.: gerri + herri-kirola*

Gorputz txarra: gor batek botatako putz gupidagabeak uzten digun gorputza. *Jat.: gor + putz + txarra*

Harri-kirolak: harria erabiltzen duten herri-kirolak: harri-jasotzea, idi-demak... *Jat.: harria + herri-kirolak*

Ikatu: ikasteko metodoak asko aldatu direla oraindik ez dakitenei, euskaltegira joan beharrak sentiarazten diena. *Jat.: IKA + ikaratu*

Ikazketa: ikatza egiten ikasteko prozesua. *Jat.: ikatz + ikasketa*

Ielaldin: behorak altan jartzeko botika. *Jat.: ielaldia*

Irripark: umeen irribarre estimatua lortzeko gurasoek antolatu duten parkea. *Jat.: irribarra + park*

Ixtor-peta: tabakoa falta denean, ixtoz eta txokolatez egiten den kanutoa, meta itxurakoa. *Jat.: ixtor-meta + peta*

Kalanbresi: alanbresi elektrifikatua, kalanbrea ematen duena. *Jat.: kalanbre + alanbresi*

Koka-dantza: kokaren eraginez, denak sokan jarrita, egiten den dantza, soka-dantzaren antzekoa. *Jat.: soka-dantza + koka*

Koka-tira: ezinean dabiltzan sokatiralariek dopina hartzen dutenean, jardunari jartzeko zaion izena. *Jat.: sokatira + koka*

Larrigorritu: larrigorritan egoteak batzuei eragiten dien ondorioa. *Jat.: larri + larrigorritu*

Leitzalarria: Leitzalarreko paraje ederrekin Leitzara benetan maite duenari sortzen dioten asebetetze eta zorion-itomenaren antzeko sentsazioa. *Jat.: Leitzalarrea + larria*

Leitz-motiv: Leitzara eta Leitzaren inguruko guztia bizitzeko arrazoi eta arretagune nagusi bihurtzen denean. *Jat.: leiv-motiv + Leitzara*

Bio-mon: "ihauterietan, besteak beste, oso lagungarria da bio-mon ugari hartzea, gorputzari bizkortzen laguntzeko"



Leitzara
esnatzen z



"Momentu honetan, behintzat, ez du ematen amorrazio berezirik dutenik"

Meta-zirria: ixtor-metan gordeta, batzuetan meta-ziria baliatuta, zirrika ari-tzea. *Jat.: meta-ziria + zirria*

Palkobea: plazan izaten diren ikuskizunetarako bista ederra eskaintzen duen balkobea. *Jat.: palkoa + balkobea*

Roka-dantza: parranda egunetan tabernako komuneko atearen ondoan sortzen den koreografia, soka-dantzaren antzekoa, "roka" bisitatzeko asmoz. *Jat.: soka-dantza + "roka"*

San Jan bezpera: jai garrantzitsu horren bezperan egiten den otordua. *San Juan + jan*

Segapotea: segan aritzen direnek, merezitako atsedendian hartzen duten tragoa. *Jat.: segapotoa + potea*

Sor-sor: moja gorra. *Jat.: sor + sor*

Sor-gin: Konbinatuak gustuko dituen moja bihurria. *Jat.: sor + sorgin + gin*

SOR Nafarroa: entzumena galdu duten pertsonentzat SOS Nafarroak jarri duen zerbitzu berezia. *Jat.: sor + SOS Nafarroa*

Su-ondo: gipuzkoarrek eta bizkaitarrek, suaren ondoan goxo-goxo ikusten gaituztenean, esaten digutena. *Jat.: zu ondo + sutondo*

Susaldin: behiari susa aldia izan dezan ematen zaion botika, abereentzat viagra-ren ordaina. *Jat.: susaldia*

Txapapote: herriko hitzontzi tartarrak, galipotea bera baino ilunagoa eta jasangaitzagoa den txapa jasan diezaiozun, ordaintzen dizun tragoa. *Jat.: txapa + pote*

Txepelketa: esperientziarik gabeko jurgista gazteek, lehenbailehen zepeltzeko egiten duten txapelketa. *Jat.: zepel+ txapelketa*

TXOTX Nafarroa: Gipuzkoako sagardotegietan ederki zepeldu direnentzat,

Leitzara itzultzeko Nafarroako Gobernuak antolatu duen larrialdi zerbitzua. *Jat.: Txotx + SOS Nafarroa*

Ziztu-larriak: Leitzako ziztulari helduek, gazteengandik bereizteko, beren buruari eman dioten izena. *Jat.: ziztulari + larriak*

Zoldaduska: soldaduska toki zikin batean egiten zutenei, azalean pilatzen zitzaien zolda-geruza. *Jat.: zolda + soldaduska*

Zortxiko: musean, zortzi hamarreko egin ondoren lortzen den txikoa. *Jat.: zortzi + txiko*

Zur-gin: zura lantzen dutenek edan ohi duten konbinatua. *Jat.: zurgin + gin*

ALGARRA

larria: "Horrelako paraieak ikusita
zaie leitzalarria Leitza maite dutenei"



"Leitzako ziztularriak"

Marmari

ez gara bakarrak

Ez, ez gara munduko MARMARI bakarra. Hala uste bagenuen ere, internet-ek ezetz erakutsi digu, oker geundela. Izan ere, Leitzako seihilabetekaririk onena izateaz gainera, MARMARI gauza gehiago ere bada. Gutxienez honako hauek:



GIZASEMEA:

Argazkiko gizasemea Mr. Marmari duzu. Hanoch Marmari hain zuzen, Israelgo egunkari bateko zuzendaria

JAKIA:

Ez dakigu zer den, baina itxura txarrik ez du. Postreren bat dela esanenu genuke, tarta itxura du eta, baina ezin esan osagaiak zein diren. Zoritxarrez, nongoa den ere ez dakigu eta ezin dugu informazio zehatzagorik eman. Ikustearekin konformatu beharko dugu.




MUSUNZAR
OSTATUA
JATETXEA
 Elbarren kalea, 14
 Tel.: 948 51 06 07 - 948 51 04 75
 LEITZA (Nafarroa)

HERRIKO TABERNA
Torrea
Euskal presoak etxera!
 Tel.: 948 61 09 09




Gaztañaga
 TABERNA
 Ostartekoak, pintxo beroak,
 kaxuelak
 Tel.: 948 61 07 08

**ITSASONTZIA:**

Dotorea itsasontzia, ezta? Bada, MARMARI du izena, Marmari Expres hain zuzen. Honen inguruan gehixeago ere badakigu. 3.936 tonako pisua du; 96 metro luze eta 16 metro zabal da; 800 bidaiari eta 130 auto eraman ditzake, eta 18,5 korapiloko abiadura har dezake. Hurrengo alerako zozketa bat antolatzea pentsazen ari gara eta saria horixe izan liteke, MARMARI ontzian 15 eguneko kruzeroa. Zer iruditzen zaizu?

HONDARTZA:

Bai, MARMARI hondartza baten izena ere bada. Dirudienez Greziako irla bateko inguru bati hala deitzen diote eta, nonbait, toki ederra eta osotara turistikoa behar du izan. Interneteko bilatzailean sekulako web-orri pila agertzen da honen inguruan. Itxuraz, behintzat, turismorako toki atsegina dirudi. Hau ere zozketaren sari-rako kontuan hartuko dugu.

**HOTELA:**

Hotel honen izena MARMARI da. Jakina, Marmari hondartzaren inguruan dago. Lurraren klima benetan berotzen baldin bada, agian urte batzuk barru Leitzan ere horrelakoak ikusiko ditugu.

Ikusten duzue, munduan zehar gure izen berarekin zer dagoen jakiteko sistema onā da interneten bilatzea. Ah, eta MARMARI izenarekin egin dugun bezalaxe, beste edozeinekin egin liteke. Alegia, zure izena edo abizena, edo beste edozein izen sartuz gero, baliteke ustekaberen bat, gauza harrigarriren bat edo auskalo zer aurkitzea. Egin ezazu proba, erraza da eta.

Jose Ignacio Arzallus
Harategia - Urdaitegia
Εἰθεκο τῆστορα

Tel.: 948 51 03 77 - LEITZA
Tel.: 948 68 30 42 - BERASTEGI

Okindegia - Gozotegia
EGYZKITZA

Erreka, 3 behea - Tel.: 948 51 06 14 - LEITZA
Elbarren, 35 - Tel.: 948 61 06 46 - LEITZA
San Frantzisko, 24 - Tel.: 943 65 00 41

HARATEGIA - URDAITEGIA
URKIOLA

Idi haragitan eta hemengo Zekorretan espezialitatea

Tel.: 948 51 04 67 - LEITZA

LEITZAKO SUHILTZAILEAK

Historia pixka bat

Batzuk jakinen duten bezala, Nafarroako lehen suhiltzaile boluntarioak leitzarrak izan omen ziren. Gaur egun ere, hamabost laguneko taldea, sua nonahi delarik ere, beharrezko dituen tresnak hartu eta instant batean abiatzen da bertara. Suhiltzaile boluntarioen lehen taldea 1978 urte aldera sortu zen, baina guzti honen sorrera nondik eta noiz izan zen aztertu beharko genuke.

Suhiltzaile boluntarioak sortu baino lehenago, suteen aurkako aseguru elkarte bat sortu zen, “*Sociedad de seguros mútuos contra incendios de la villa de Leiza*” izenekoa. Aseguru elkarte honen sorrera zein urtetan izan zen ze-

hazki jakin ez arren, elkarte horretako arauak, Leitzan, 1892ko martxoaren 22an onartu ziren. Zuzendaria *Antonio Tirapuzen*, diruzaina *Juan Miguel Lasarte* eta idazkaria *Martin Antonio Huarte*. Hala dio behintzat gure eskuetara iritsi den “NUEVO LIBRO SEGUNDO DE LA JUNTA SUPERIOR DE EDUCACIÓN DE NAVARRA” liburuxkak. Bertan, garai haietan elkarteko arauak zeintzuk diren azaltzen dira.

Elkarteko bazkide izateko, Leitzan edonolako eraikuntza, ondasun, altzari eta abere (behi eta zaldi) ondasunen jabe izan behar zen eta elkartean inskribatu. Elkarteak ondasun horiek tasatzen zituen; horretaz gainera, elkarteko kide izan nahi zuten guztiak tasa horren araberrako kantitate bat ordaindu behar zuten sarrera gisa (urte haietan, etxebizitzaren kasuan, 1.000tik 5), eta baita ezarritako kuota garaiz ordaindu ere. Bestalde, elkarteak, sute natural batek sorturiko kaltea or-

dainduko zion kalteturiko bazkideari.

Jasotako diru guztiaren bidez, elkarteak hainbat ondasun erosten zituen, etekinak sortu eta ezbeharrei aurre egin ahal izateko. Hala nola, Ibero baserria (20.000 pta ordainduta), Azpikoerrot (gaur egun ez da elkartearena), Ibero inguruko hainbat pinudi orain dela bi edo hiru urte salduak...

Bazkide guztien betebeharra zen suteen bat gertatzean, hura itzaltzen laguntzea. Sute deia ez kilen bidez egiten zen eta ahal zuen guztia joaten zen; garai haietan mangerarik ez zenez, giza kateak osatu eta telazko pertzen bidez garraiatzen zuten ura.

SUHILTZAILE BOLUNTARIOEN LEHENGO TALDEA

Hainbat urtetan elkartearen erdi hilik egon zen, ez zuen inolako jarduerarik. 1978 urte aldera, elkartearen berriro pizteko asmoz,



osatzen zutenen zerrenda sortu eta bile-rak egiten hasi ziren. Dena berritik hasi zen, kide bakoitzak aseguratu nahi zuen etxebizitzaren balorearen 1.000tik 1 urte-ro ordainduz.

Material zaharra bildu (mangera zahar batzuk, ureztatzeko iturriak irekitzeko giltzak...) eta berria erosiz hasi ziren. He-mendik sortu zen lehenengo suhiltzaile boluntarioen taldea. Taldea indartzeko asmoz fabrikako suhiltzaileak gonbida-tzen zituzten, taldean sartu eta irakasteko.

Diputazioak kamioi zaharra, moto-bomba, eta abar eman zizkien. Pixkanaka materiala bildu, talde kokor bat osatu eta trebatuz joan ziren. Suhiltzaileen parkea 1.990/91 urteetan egin zen. Diputazioa-ren subentzioa izan zuen eta auzolanean egin zen, udaletxeko langileen laguntzaz. Beste zerbitzu bat emate aldera eta parke-an horretarako lekua zegoela aprobe-txatuz, kamioia erosteko diruarekin an-bulanzia erosi zen. Urte batzuetan martxan izan zen, baina erabili ahal izateko ATA beharrezkoa denez, anbulantziarena ber-tan behera geratu zen. Udalak "todoter-re-no"-a erosi zuen eta orain kamioi berria ekarri dute, guztiz hornitua, elurra ken-tzeko makina edo "quitanieves" a, argi-indar sortzaile berria, puntako moto-bomba, eta abarrekin. 105.000 euro kosta da, eta osorik Diputazioak ordaindu du.

Orain arte Diputazioak emandako ba-liabide guztiak, suhiltzaile profesionalen balio ez zien materialetik etorri dira. Ho-rrela, begi-bistakoa den bezala, trebeta-sun gutxiago gehi baliabide exkaxagoak, arrisku handiagoak izatea errazagoa da. Beharrezkoa zen kamioi berria. Diputa-zioak zerbait berria eman duen lehen al-dia izan da.

BOLUNTARIOEN LANA ETA BALIABIDEAK

Boluntarioak trebatzeaz gain, beraien lan



eremuak ere prestatu dituzte, lana ahalik eta azkarren egite aldera. Esate baterako, baserri guztietan, sute kasuan, bakoitzari gertuen geratzen zaion ur putzu edo itu-rria non dagoen adierazten duten plakak daude, orain gutxi berrituak. Hasieran, hilean behin igande goizetan elkartzen zi-ren probak egiteko baina gerora, igande goizetatik larunbat arratsaldetara igaro ziren; probak parkean bukatu eta ondoren ongi afaldu. Tarteka ikastaroak egiten di-tuzte suhiltzaile profesionalekin. Altsa-suko suhiltzaileen sarjentua etortzen da Leitza eta Goizuetako suhiltzaileak for-matzera, eta hainbat ordu libre igaro ditu bi herri hauetan boluntarioei irakasten.


Suhiltzaile boluntario guztiek, Dipu-tazioak ordaintzen dien aseguru bat behar dute. Leitzaren kasuan, Diputazioak gehienez 20 aseguru ordaintzen ditu, eta egon litezkeen gainontzeko boluntarioen aseguruak udalak ordaindu beharko lituz-ke. Aldi berean, suhiltzaileen ibilgailuak erabili ahal izateko gida-baimen bereziak behar direnez, boluntarioek gida-baimen berezia eta ATA atera ahal izateko lagun-tza ematen du, baina gutxienez hamar ur-tez boluntario izan behar da.

Aipatu behar, borondate eta lanerako

gogoia duen edozein izan daitekeela bo-londres.

Orain urte batzuk arte, su-deia, udale-txe atzean zegoen sirenaren bidez egiten zen. Sirenak behin joz gero, sua mendian zela adierazten zen; bi aldiz, herriko etxe-ren batean; eta hiru aldiz, baserriren bate-an. Deia egiteaz arduratzen zirenen ze-rrenda bat zegoen, sirenatik gertuen bizi zenarengandik hasten zena. Orain, sirena suhiltzaileen parkean dago eta bolun-tarioen eginkizuna da bera jotzea. Sua men-dian bada, behin jotzen da eta etxe edo baserri batean dela adierazteko, bi aldiz jotzen da. Nafarroako SOS zerbitzua ar-duratzen da boluntarioei deitzeaz eta ber-tan boluntario guztien telefonoak dituzte. Teorian, beraiek deitu beharko liokete guztiei, nahiz eta azkenean, boluntarioek elkarri deitzen dioten.

Hasieran aipaturiko aseguru elkarte-a gaur egun oraindik bizirik da, baina guz-tiz independentea da eta esan liteke ez duela inolako jarduerarik, nahiz eta kuota ordaintzen jarraitzen duten bazkide dire-nek. Elkarrekin, oraindik berea den patri-monio garrantzitsu bat du, Goizueta on-doan dagoen Ibero baserria eta inguruko hainbat mendi zati, esaterako.





LEITZAN, euskaldunen artean erdaraz?

Leitzan gehien-gehienok, ia denok, euskaldunak gara. Alegia, euskaraz hitz egiten badakigu. Hala ere, ez da harritzekoa euskaldunak elkarren artean erdaraz ari direla entzutea, eta kanpotik etorritako askorentzat harrigarri gertatzen bada ere, bertan bizi garenok badakigu eguneroko ogia dela. Euskara ikasten ari diren euskaldun berriei, esaterako, ulertezina gertatzen zaie. Leitza herri erabat euskalduna dela pentsatzen duen kanpotarrarentzat ere, ziur asko, ustekabe latza da hona etorri eta hainbeste erdara aditzea.

Esan bezala, askori justifikaezina irudituko zaio. Ez gara gu hemen deus justifikatzen hasiko, ezta inor gurutzera eramaten ere. Saiatuko gara, ordea, euskal-

dunen artean erdaraz zergatik hitz egiten den ulertzen, argibide moduko batzuk ematen. Ez da hau soziolinguistikazko artikulu sakona, ez gara azalpen eta definizio tekniko eta jasoetan murgilduko. Denok ulertzeko moduko ideiak eta kontzeptuak erabiliko ditugu, edo horretan saiaturiko gara behintzat.

“Leitzan ez da gauza harrigarria euskaldunak elkarren artean erdaraz ari direla entzutea”

Esan behar dugu, dena den, gure ustez behintzat, jarraian aipatuko ditugunak “arrazoiak” baino, askotan “aitzakia” izaten direla; baina uste dugu “arrazoi” edo “aitzakia” horiek neurri batean azaltzen dutela zergatik egiten den erdaraz euskaldunen artean. Jakina, arrazoiaren ondoan, arrazoi horri indarra kenduko dion argudioa emanen dugu, uste baitugu Leitzan inon baino errazagoa dela euskaraz hitz egiteko bene-benetako aitzakiarik ez dagoela, euskaraz ez jakitea edo erdaraz hitz egiteko gogo eta borondatea ez bada.

Gogora dezagun, badaezpada, euskaraz “hitz egiteaz” ari garela, idazteak eta irakurtzeak beste ezaugarri batzuk ditue-

lako; agian Marmariren beste aleren batean aztertuko dugu. Beraz, hitz egiteaz, ahozko harremanaz ari gara, eta gainera euskaldunen artean hitz egiteaz. Hau da, euskaraz hitz egin dezaketen euskaldunak, baina erdaraz egitea erabakitzen dutenak. Izan ere, hizkuntza aukeratzeko garaian erabaki bat hartzen da, aukera bat egiten da. Goazen, beraz, besterik gabe mamira, arrazoi horiek ezagutzera.

OHITURA:


Normalean, aipatzen den lehendabizikoa izaten da. Senide, lagun edo ezagun batekin erdaraz hitz egiteko ohitura dagoenean, zaila omen da aldatzea, kosta egiten da, arraro sentitzen gara.

Egia da. Ohitura aspaldikoa denean, arraro sentitzen gara aldatzean, kosta egiten da. Baina noiz arte egiten da arraro? Zenbat "kostatzen" da? Hizkuntza aldatzeko erabakia hartzen dutenak, akaso egun edo ordu gutxitan sentituko dira arraro, baina normalean berehala irudituko zaie normala euskaraz hitz egitea. Are gehiago Leitzan. Izan ere, euskara da Leitzako hizkuntza nagusia eta hemen euskaraz egitea ez da bitxikeria edo gauza harrigarria. Gainera, Leitzan behintzat, txikitik ume guztiak euskaraz hitz egiten dute eta hitz egiten zuten lehenago ere. Alegia, umetan euskaraz hitz egiteko ohitura zuten, eta noizbait ohitura hori aldatu eta batzuk gaur egun erdaraz egiteko ohitura dute. Beraz, garbi dago ohiturak aldatzeko ez dagoela eragozpen gaindizirik, eta behin egin duguna berriz egin dezakegula, alderantziz bada ere.

ERRAZTASUNA:

Erdaraz errazago hitz egiteak, askotan, erdarara bultzatzen du, euskara bazter utzita.

Euskaraz eta erdaraz jakin arren, erdaraz hobeki egiten duenak, askotan erdarara jotzen du. Hori gertatzen da, adibidez, herri edo hiri erdaldunetako ikasletoleto edo D ereduko ikasle askorekin. Gazteak dira, hizkuntza kontzientzia garbirik ez dute, eta erosotasuna eta konfiantza ematen dien hizkuntzara jotzen dute. Eta Lei-



"Euskarak ez dauka, gaur egun, gaztelaniak duen "gazte hizkera edo argota". Horrek ez du esan nahi, hala ere, gazteek gaztelaniarekin egin behar dutenik. Bestelako aukerak ere badaude."



"Haurrek, normalean, euskaraz egiten dute Leitzan. Adinean aurrera joan ahala, ordea, batzuk erdaraz ere egiten hasten dira. Horrek ere erakusten du ohiturak alda daitezkeela, ez direla nahitaez betiko izan behar."

"Edozein hizkuntzatan hitz egiteko erraztasuna lortzeko edo ez galtzeko modu bakarra dago: erabiltzea"

tzan? Berdin funtzionatzen al du horrek? Gure ustez, zenbait kasutan hala izanena da. Hau da, bada Leitzan erdaraz hobeki moldatzen den jendea, eta euskararen aldeko kontzientzia eta motibazio handirik ez badauka, erdarara jotzen du. Jakina, normalean erdaraz egiten badu, beti moldatuko da hobeki hizkuntza horretan, eta nekez hasiko da euskara gehiago erabiltzen, bere inguruak berak ez badu neurri batean horretara bultzatzen.

Bestalde, gure ustez, erdaraz errazago moldatzen direnen multzoa uste baino handiagoa da. Askok, nolanihi ere, ez dute aitortu nahi izaten, norberaren euskalduntasunean nolabaiteko “mantxa” izan daitekeelako. Baina ikustea besterik ez dago, batzuetan nolako zailtasunak izaten ditugun zenbait gauza euskaraz adierazteko edo azaltzeko. Eta horiek berak, erdaraz, oso erraz isurtzen zaizkigu. Gehixeago gertatzen da jende gaztearekin, baina helduagoen artean ere soma liteke. Honetan guztian, noski, erdarak egiten duen presioak eta duen presentziak zerikusi handia dute, ez baita kasualitatea edo gure ezintasun hutsa. Nolanahi ere, ez dugu exageratu behar, gaur egun Leitzan, oro har, euskaraz ongi hitz egiten dela uste dugulako.

Lehen esandako ideia azpimarratuko genuke, hala ere. Hizkuntza batean, edozein hizkuntzatan, hitz egiteko erraztasuna lortzeko edo ez galtzeko modu bakarra dago: erabiltzea.

JERGA EDO ARGOTA:

Euskarak ez duenez gaztelaniaren pareko “jerga” edo hizkera gazterik, gazte askok erdarara jotzen du.

Hori ere hala da. Gazte askoren hizkerak, euskara hutsez ez dauka gaztelaniaz daukan “ukitu” hori, jergak ematen dio: “mogollón”, “guapo”... Baina horregatik bakarrik euskara ez erabiltzea ez al da gehiegitxo? Normalean, jokabide ezberdinak ikus ditzakegu: batzuk, besterik gabe, erdaraz egiten dute. Beste batzuk, gazte hizkeraren kutsurik gabeko euskara “garbia” eta “klasikoagoa” egiten dute. Gehienetan, euskaraz egiten da eta hizkerari gazte kutsua erdarazko eseren bitartez ematen zaio, alegia, erdarakadak tartekatuz. Azkenik, gazte hizkera hori euskaraz sortu eta erabiltzeko aukera dago. Euskararen ikuspuntutik, azkeneko aukera da interesgarriena eta ego-

“Edozein euskara molde erabilia ere, gaztetasuna ez da hizkera hutsarekin neurtzen, hainbat faktoreren bitartez baizik”

kiena, eta hirugarren aukera gaztearentzat errazena edo praktikoena. Nolanahi ere, erabiltzen duen aukera edozein dela ere, gaztea gazte da, eta gaztetasunaren neurgailua ez da hizkera hutsa, beste faktore askoren batuketa baizik.

MODERNOTASUNA:

Euskara nekazarien munduarekin, baserriarekin eta herri txikien bizimodu “atzeratua” rekin lotu izan da. Gaztelania berriz, giro urbano, moderno eta aurreratuarekin. Modernotasun horretara lotuta agertu nahi duenak, askotan, erdarara jotzen du, nahiz eta lotura hori inkontzientea izan.

Hasteko, esan behar da oso eztabaidagarria dela askotan egiten den lotura hori: herri txikiak eta baserriak atzerapenarekin lotzea eta hiri handiak aurrerapenarekin, alegia. Baina egia da lotura hori egiten zela eta, indarra galdu badu ere, oraindik egiten dela, eta oraindik ere gaztelania modernotasunarekin lotzen dela, euskara baino gehiago bai behintzat. Zorionez, hizkuntzen inguruko ideiak aldatuz doaz, euskarak ere itxura eta esparru modernoagoak eskuratu ditu (zientzia, rokanrola...), eta jendea ere ohartzen hasi da euskara erdara bezain modernoa izan daitekeela. Bere burua modernotzat jotzen duen edozeinek egin dezake, lasai aski, euskaraz gaur egun, bere “irudia” kaltetzeko beldurrik gabe.


“GRAZIA”:

Erdarak, askotan, “grazioso” izateko aukera handiagoak ematen omen dizkigu, hainbat gauza esateko “grazia” handiagoa omen dauka.

Telebistan umorezko saioak ikustea besterik ez dago, hainbat euskaldunek hori oso barneratua dutela jakiteko. Kontakizunetan, sarritan, entzulearen algara eragin behar duena erdaraz esaten da. Zenbait gauza, antza denez, euskaraz esanda ez dira barre eragile. Hori, jakina, ez da horrela. Bestela pentsatu beharko genuke garai bateko euskaldunek, euskara besterik ez zekitenek, ez zutela umore-



“Ez diezaiogun bizkarra eman euskarari”



“Leiztan gehien entzuten den hizkuntza euskara den arren, erdara entzutea ere nahiko gauza arrunta da”

rik, edo ez zirela gauza deus barregaririk kontatu eta besteei barre eginarazteko. Baina garbi dago haiek ere umorea bazutela, eta gauza zirela euskaraz ere “grazia” izateko. Arazoa ez dago euskaraz, beraz, buruan sartu zaigun ideia oker horretan baizik. Beste kontu bat da, gauza guztietan bezala, aritu egin behar dela eta hizkuntza ere, beste tresna asko bezala, erabili egin behar dela hondatu edo herdoildu ez dadin.

ITZULTZAILE LANIK EGIN NAHI EZ:

Informazioa edo mintzagaia, sarritan, erdaraz iristen zaigu eta horren berri emateko edo horren inguruan euskaraz hitz egiteko itzultzaile lana egin behar izaten da.

Egia da komunikabideetatik eta beste iturrietatik (publizitatea, komunikazio ofizialak, lagunak...) askotan informazioa erdaraz iristen zaigula eta horren berri emateko garaian itzuli behar izaten

“Hizkuntza ere, beste tresna asko bezala, erabili egin behar da hondatu edo herdoildu ez dadin”

dugula. Itzulpena egiteak lan ematen du eta, horren aurrean, bere horretan, erdaraz ematea erabakitzen da; askotan, elkarriketa bera erdaraz jarraituz.

Baina bi gauza gutxienez esan daitezke horretaz. Lehendabizikoa, ez dugula dena literal edo hitzez hitz itzuli beharrik eta, hain zuzen, horixe dela lana ematen diguna. Informazioa itzuli beharrean, euskaraz baina gure modura esanda, askoz errazagoa da. Bestalde, jasotako informazioa prezio berean erdaraz eta

itzuli gabe eman arren, ez dago gero elkarriketan erdaraz nahitaz jarraitu beharrik.

ERDARAREN “MILITANTEAK”:

Euskaldun askok, erabili behar duen hizkuntza aukeratzekoan, bere aurrean nor duen begiratzen du. Hau da, solaskidearen joerara egokitzen da. Aurrekoak euskaraz egiteko ohitura badu, euskaraz egingen du. Erdararako joera badu, erdaraz. Eta badira pertsona batzuk, euskaldunak izan arren, arrazoi desberdinak direla medio, jo eta ke erdaraz aritzen direnak, egoera guztietan eta pertsona guztiekin edo gehienekin.

Besteekin beti erdaraz egin nahi duenak horretarako eskubidea du, jakina. Eta euskaraz egin nahi duenak ezin du behartu, ezin dio inposatu euskaraz egitea. Baina alderantziz ere ez, ezta? Alegia, beti euskaraz egin nahi duenak ere badu horretarako eskubidea, eta besteak ezin

dio berea inposatu. Beraz, gure aurrean dagoenak beti erdaraz egiteko ohitura baldin badu, oso ongi, egin dezala, baina ez dugu guk horregatik geurea aldatu behar. Denok errespetatu beharko dugu bestearena. Normalean, elkarriketa elebidun xelebrea gertatzea baino errazago izanen da bietako batek amore ematea, baina ez du nahitaez izan behar euskarazko joera duenak, ezta?

ERDARAREN KUTSU "JANTZIA", "ELEGANTEA":

Lehen aipatu dugun modernotasunaren ideiarekin lotua dago. Batzuei iruditzen zaie gaztelania hizkuntza jantziagoa dela, eleganteagoa. Esamolde dotore eta indartsuak dauzkala, euskarak ematen ez dizkigunak.

Euskarak ere badauzka esamolde indartsu eta dotoreak, nahi izanez gero. Hizkuntza landua ere izan daiteke euskara, eta hori hiztunaren esku dago, neurri handi batean. Hizkuntza "jantzia" eta elegantea gaztelania dela beste topiko bat da, hizkuntzen inguruan sortzen diren topiko ugarien artean beste bat, baina errealitatea beste bat dela erakusten diguten adibide ugari badago hor barna, zorionez.

Aipatu ditugu, bada, euskaldunen artean erdara zerga-



"Elurraren geruzak neguan herria estaltzen duen bezalaxe, euskararen geruzak urte osoan estal dezala"

tik erabiltzen den azaltzen duten zenbait arrazoi edo "aitzakia". Badago aipatu ez dugun beste bat, baina akaso garrantzitsua dena. Euskaldun batzuk, besterik gabe, ez dute euskaraz hitz egin nahi. Ez dutelako gustuko, arrazoi ideologiko edo politikoengatik, arazoren bat sortu dielako, edo besterik gabe, batere interesatzen ez zaielako eta nahiago dutelako erdaraz hitz egin.

Hauen kasuan, bere arrazoiarekin ados egon edo ez, aitortu behar da gutxienez koherenteak direla. Ez dute hitz egin nahi eta ez dute hitz egiten. Kitto. Baina badago beste egoera bat, oso hedatua, hain koherentea ez dena. Euskararen aldeko jarrera erakutsi, euskara maite dutela esan, euskararekiko atxikimendua adierazi eta agertu, eta gero euskaldunekin erdaraz egiten dutenena. Nola azaldu hori? Euskara maite duenak eta bultzatu nahi duenak, erabili behar dela pentsatzen duenak, zergatik egiten

dio erdaraz beste euskaldun bati?

Goian aipatu ditugun arrazoiak gogoratu behar dira, baina esan dugun bezala, arrazoi horiei guztiei buelta eman dakieke. Gainera, euskararen aldeko motibazioa duenak, eta hala aitortzen duenak, "arazo" horiek neke handirik gabe gainditu beharko lituzke, batez ere Leitza bezalako inguru batean: herri euskalduna da, euskara da hizkuntza nagusia, euskara oso modu naturalean erabiltzen da, gehien-gehienak euskaraz ongi moldatzen gara, euskararen aldeko jarrera dago... Badugu, beraz, honen guztiaren inguruan zer pentsatua.

Artikulutxo hau luze samarra atera zaigu, baina hala ere sakondu gabe gelditu izanaren sentsazioa dugu. Esan nahi baita, gai interesgarri eta sakona dela, konplexua, gauza asko azaltzeko aukera emanen lukeena. Honaino iritsi bazara, hala ere, baduzu meritua, eta gai honetan pentsatzen jarraitzeko gonbita egin nahi dizugu. Pentsatzen eta, animatuko bazina, baita idazten ere, Marmariren hurrengo alean zure iritzia argitaratzeko. Izan ere, euskararen erabilera bultzatzeko, besteak beste, gai horretaz hitz egin eta eztabaidatzeko aitzakiak eta aukerak eman behar dira. Hau ere, horretarako egin dugu: guk bildutako ideia hauen inguruan pentsatzeko aukera izan dezazun eta, nahi eta ahal baduzu, zure ideiak eta iritziak ere zure ingurukoekin konpartitu ditzazun.



ONGI ETORRI
LEITZAN ERE
EUSKARAZ

Pertsonai ezkutua

Ariketa zein den badakizu, ezta? Aurreko aleetan egin behar izan zenuten berbera: begia zorroztu, arrastoren bat bilatu, deskartatzen hasi, pentsatu, gehixea-go pentsatu, begiak itxi, inspirazioa etorri arte itxoin eta, zast!, halako batean, kolpe-kolpean, nor den asmatuko duzu. Badaezpada, arrastoren bat emanen dizugu: leitzarra da, gaztea (badakizu gaztetasuna txikle bat bezalakoa dela, nahi adina luza daitekeela), bi begi, sudur bakarra, ahoa eta bi belarri ere badauzka, hitz egiten ere badaki... Tira, nahikoa izanen duzulakoan, horretantxe utziko dugu. Ea ez dizugun lan zailegia jarri.



Ezetz asmatu

Oraindik ez al zara zu atal honetan agertu? Bada, MARMARiren 7. alea da eta jende dezente agertu da argazki zaharrotan. Zu ez? Tira, lasai, hurrengoan izanen da. Gainera, nork bere burua ezagutzea erraza da oso, eta askoz ere entretenigarriagoa da besteak ezagutzen saiatzea. Gainera, argazki zaharrok hunkigarriak izan litezke, baina baita urteen joanaren salatzaileak ere. Izan ere, egun edo aste batetik bestera alderik igartzen ez bada ere, duela urte batzuetako argazkiek garbi uzten dute denok zahartzen garela, urteak ez direla alferrik pasatzen, eta gaztetan denak politagoak ginela. Hala ere, lasai, zahartzeak ere bai baitu bere alderdi ona: hasteko, asko ikasi eta esperientzia handitzen da; bestetik, ba, zera, bai, asko ikasten dela... esperientziaren kontua ere hortxe dugu, bai, horixe, esperientzia... eta asko ikasten dela ere esan al dugu? Eta esperientzia aipatu dugu?...



KANPOAN IKASTEN ARI DIREN LEITZARRAK

Ale honetako elkarrizketarako kanpoan ikasten ari diren hiru leitzar hautatu ditugu. Ziortza Euskal Herrian bertan ikasten ari da, Bilbon hain zuzen. Euskal Herria da, bai, baina Leitzaren aldean oso bestelako hiria. Xabi, berriz, Espainiara joan da, Huelvara. Hau ere, zer esanik ez, arrunt ezberdina. Eta azkenik, Edurne, Europako iparraldean dagoen Suediara ikastera joan dena.

Hiruei galdetegi berbera egin diegu eta, jakina, hiruek erantzun ezberdinak eman dituzte. Aipatu behar da, nolana ere, hiruen erantzunetan antzekotasun nabarmen bat sumatu dugula: Leitza oso gogoa-n dute eta ez lukete Leitza nolana ere utziko beren bizitoki berri horren truke!

Edurne Etxeberria

1.- Zer ikasten ari zara eta non ikasten duzu?

Irakaslea, atzerriko hizkuntzan (ingelese) berezitasuna da nire ikasketen ize-na. Hitz batean esanda, Lehen Hezkuntzan ingeleseko klaseak emateko. Duela hiru urte hasi nituen ikasketak Iruñean Unibertsitate Publikoan baina urtariletik Suedian nago, Kalmar izeneko hiri batean, Ekainean dena bukatzeko asmoz.

2.- Nola joan zinen atzerrira eta zergatik?

Arazoi asko eman ditzaket. Hasteko, oso gustoko dut bidaiatzea, eta batez ere jendea ezagutzea, esperientzia berriak bizitzea. Horregatik, pentsatu nuen aukera ezin hobea zela atzerrira etortzea. Bestetik, nire ikasketei begira, nire ingelese maila hobetzeko egin nezakeen gauzarik onena zela garbi neukan. Beraz, nire nahia bete nuen, lurralde zoragarri honetara etorri nintzen Erasmus programaren laguntzarekin.

3.- Non bizi zara, pisuan, erresidentzian..., eta norekin?

Bueno, lehenik eta behin, hemen Kalmarren, Kalmarhen izeneko elkarte bat dago ikasleentzako pisuen ardura erama-

ten duena. Hona etorri aurretik beraiek aurkitu zidaten nire bizilekua. Egia esan, hemen pisu mota ezberdinak daude: binakako etxe txikiak, "corridor" izeneko korridoreak hamar pertsonak osatutakoak, apartamentu antzekoak... Niri, ohikoena den korridore horietako batean egokitu zitzaidan. hamar ikasle gaude nire korridorean, eta horietatik zortzi suediarrek dira eta bederatzigarrena Estoniakoa. Nire korridorean, sukalde bat, egongela handi bat eta garbigailugela daude, hamarren artean banatzen ditugunak. Logelak, berriz, banakakoak dira baina bainugela binaka banatzen dugu. Gure korridorea, beste birekin loturik dago irekita dauden ate batzuen bidez. Oso-oso gustora nago bertan eta elkar errespetatuz ongi moldatzen gara denak.

4.- Zein dira Leitzaren eta Suediaren arteko diferentzia nabarmenak?

Diferentzia asko aipa ditzaket, noski, baina nabarmenena gaueko giroa da. Batetik, ordutegia. Hemen, iluntzeko 7etan hasten dira juergarekin, baina goizeko 2etarako dena amaitua! Leitza be-



rriz...ia-ia 2etan hasten gara eta amaitu...airean utziko dut.

Bestetik, jendea. Diferentzia izugarria dago Leitzar eta suediarren artean. Suediarrak oso hotzak, itxiak, aspergarriak dira. Edaten dutenean bakarrik irekitzen dira eta orduan hitz egiten dute, baina hurrengo egunean...Leitzarrak berriz...kontrakoak direla soilik esango dut zeren deskribatzen hasten banaiz emozionatu egingo naiz.

Bestalde, Suediako paisaia eta Leitza-koa ez dira berdinak, ez horixe. Suediako iparraldera joan behar da Leitza-n ditugun mendi zoragarriak aurkitzeko, eta hala ere nahiko lan. Laburbilduz, dife-

rentzia asko daudela esango dut eta kontatu dizuedanagatik badirudi dena hobe delatela Leitzan, baina onartu beharra dut hemen ere bere xarma duela gauza bakoitzak.

5.- Zerk harritu zintuen gehien?

Dudarik gabe hemengo bizitza mailak. Ikaragarri ongi bizi da hemen jendea, izugarritzko maila altua dago eta benetan, erraztasun guztiak daude hemen oso ongi bizitzeko. Oso erraz lor daitezke gauza guztiak. Bertako gobernuak izugarritzko laguntzak ematen dizkie ikasleei, beren ikasketetarako, beren gazte bizitzarako. Jende helduak ere erosotasun guztiak dituzte jasotzen duten laguntza guziarekin. Benetan, hemengo bizimodua ikaragarria da, ezin hobea!!

6.- Zer botatzen duzu faltan Leitzatik?

Dudarik gabe, nire jendea, familia, lagunak, nire herri maitea, Euskal Herri osoa !!! Ikaragarritzko gogoia daukat denak ikusteko. Baita horko juergak ere, asko gogoratzen naiz bertako gaueko giro ezin hobez. Horko eguraldia ere asko botatzen dut faltan zeren hemen ez dugu

“Hemengo hezkuntza sistema izango zen bi aldiz pentsatu gabe Euskal Herrira eramango nukeena, eta orokorrean bizitza-maila”

berokia ezertarako kentzen kanpoan gaudenean. Ikusten duzuenek, gauza asko botatzen ditut faltan hortik, baina badaikit, horra bueltatzen naizenean hemengo gauza asko botako ditudala faltan, dudarik gabe !

7.- Ikasketak bukatutakoan zer botatu duzu faltan hortik ?

Gehienbat, hemen ezagutu dudan jende zoragarria! Lurralde guzietako jende ezberdina izan da hemen nire familia eta lagunak lekua hartu duena eta benetan, asko oroitu naiz beraiez. Eta hauekin loturik, beraiekin pasatzen ari naizen momentu oro: pestak, ateraldiak, egiten ditugun erokeriak... Lehen aipatu dudan

bezala, hemen gauza guztiak dute beren xarma niretzat. Bestetik, nahiz eta ikasketak ekainean bukatzen ditudan, uda ostean beste ikasketak batzuk egiten jarraitzeko asmoa dut, beraz, dudarik gabe, asko botako dut faltan hemen dagoen hezkuntza sistema. Hain da erreza dena hemen! Laguntzak eta erraztasunak ematen dituzte alde guztietatik eta beraz, hemen ikastea hoberena da.

8.- Geratuko al zinateke han bizitzen? Zergatik?

Uf ! Bizitzen betirako? Dudarik gabe, ez! Alde batetik, Euskal Herrian bizi nahi dudalako. Beste aldetik, atzerrian bizitzea erabakiko banu, Suedia ez aukeratzearen arrazoi bakarra bertako klima izango zen, hemengo negu gogorra. Baina onartu beharra dut, hemengo hezkuntza sistema izango zela bi aldiz pentsatu gabe, Euskal Herrira eramango nukeena, eta orokorrean bizitza maila, noski. Beraz, bi lurraldeen arteko nahasketa bat izango litzateke perfektua niretzat, baina momentu honetan errealitatea bestelakoa denez, Euskal Herriarekin gelditzen naiz, eta batez ere Leitzarekin.

Xabi Erbiti

1.- Zer ikasten ari zara eta non ikasten duzu?

Injenieritza Tekniko Forestala, Escuela Politecnica Superior da la Rábida (Huelva).

2.- Nola joan zinen kanpora eta zergatik?

Anaien bidez, kanpora atera nahi nulako, beste kulture bat ezautu ta Huelvak erakartzen zuelako, ta Euskal Herrin eztaulako karrerarik.

3.- Non bizi zara, pisuan, erresidentzian..., eta norekin?

Etxe baten, Huelvako herri baten, Cadizeko bi neska ta Malagako mutil batekin.



4.- Zein dira Leitzaren eta Huelvarn arteko diferentzia nabarmenak?

Desberdintasunek aspektu askotan, ekonomikoki bizi kalitatea askoze txarragoa dau, sozialki kulture ta bizitzeko filosofie oso desberdiñe da ta noski, politikoki ezta zer esanik'e!

5.- Zerk harritu zintuen gehien?

Allatu ta lehenengo gauze mendi ezak inpaktatu zien, inguru guzin dauden marrubi landa ikaragarri hok, ta kutsatu basteik itten eztauen enpresa izugarrik alde guzitan, ta gero ba bueno, leno aipatutakoa, jenden filosofie!

“*Desberdintasun ugari: ekonomikoki bizi kalitatea askoze txarragoa, sozialki kulture ta bizitzeko filosofie oso desberdiñe*”

6.- Zer botatzen duzu faltan Leitzatik ?

Egie esan gauze asko! Alde batetik “eunon” batekin esnatzea...puff!, mendire buelta bat ematzea joan “Nai” nere

zakurrekin, launekin eon, lokalen ensaiatu...ta nola ez, nere familie!

7.- Ikasketak bukatutakoan zer botako duzu faltan hortik ?

Hemen in dittoten laun guzik, giroa (ikasle giroa), atsalden hondartzara joan ta iluntzen euzkie itsasoan sartzen den bittarten hondarren eserita tinbalak jotzea...

8.- Geratuko al zinateke han bizitzen? Zergatik?

Bizi guztiako ez, Euskal Herria bezelakoik ezpaitau ta sustraiek ezin baitie bere lurretik atea, baño denboratxo bateako ez nuke deskartatuko.

Ziortza Barandiaran

1.- Zer ikasten ari zara eta non ikasten duzu?

Enpresen administrazio eta zuzendaritza (LADE), Bilbon, Sarrikoko fakultatean.

2.- Nola joan zinen kanpora eta zergatik?

Bilbon ikasteko aukera neukan, osaba bertan bizi baita, beraz, eta ikasketak hauek euskaraz burutzeko aukera bakarra bertan dagoela kontuan izanik, bertara joatea erabaki nuen.

3.- Non bizi zara, pisan, erresidantzian..., eta norekin?

Bilboko alde zaharrean bizi naiz, lehen esan bezala, osabaren etxean.

4.- Zein dira Leitzaren eta Bilboren arteko diferentzia nabarmenenak?

Argiena, Bilbo oso handia dela, beraz, beti jende pila bat dabil kalean, metroan, tabernetan, dendetan...Gainera, Bilbon, autobusa, tren, metroa, etab. dauzkagu, oso ongi komunikatuta dago. Baina Bilbon belardiak ikusteko aukera bakarra parkeetan daukagu, normalean etxeak, trafikoa...besterik ez da ikusten; Leitzen ordea, belardiz inguratuta gaude, eta eskertzen da. Bilbon, gai-



«*Nahiko arraroa egin zitzaidan, eta oraindik egiten zait, eguneroko bizitzan erdara erabili beharra*»

nera, zaila da Leitzeko lasaitasuna bilatzea.

5.- Zerk harritu zintuen gehien?

Egia esan ikastera joan nintzanean ez zen Bilbora joaten nintzen lehen aldia, beraz, Bilbok berak ez ninduen bereziki harritu. Hala ere, nahiko arraroa egin zitzaidan, eta oraindik egiten zait, eguneroko bizitzan erdara erabili beharra, Bilbon bertan erdara dexente erabiltzen baita.

6.- Zer botatzen duzu faltan Leitzatik ?

Faltan gehien botatzen ditudanak,

etxeak eta lagunak dira; baina baita bertako lasaitasun eta mendiak ere. Gainera, ez naiz hain hiri handian bizitzen ohitzen, oso hotza iruditzen zait, eta batzuetan, Leitzeko herriko giroa faltan botatzen dut. Baina hala ere, asteburuetan Leitzera joateko aukera daukadenez, oso ongi moldatzen naiz.

7.- Ikasketak bukatutakoan zer botako duzu faltan hortik ?

Faltan botako ditudanak bertako lagunak izango dira, oso gutxitan ikusteko aukera izango baitut. Bestela, lehen aipatutako mugitzeko erraztasuna eta bertatik bertara denetarik edukitzea.

8.- Geratuko al zinateke han bizitzen? Zergatik?

Ikasketak bukatzean ez dut uste han geldituko naizenik, momentuz ez nuke nahi behintzat. Hiri handiegia da niretzat, aurretik esan dudana bezala hotzegia.



LEITZAKO KROSA

2003ko apirilaren 13a

Leitzako krosak tradizio handia dauka, ondoren egiten den bazkariak eta parrandak bezalaxe. Bestelako ekitaldi batzuekin batera (errege bezpera, inauteriak, kultur astea, San Juan bezpera, pestak...), leitzar askorentzat egutegian markatu beharreko eguna da, ongi prestatu beharrekoa. Izan ere, zenbait kilometroko (kategorien arabera) lasterraldia egitea ez da broma, gogorra da. Batez ere, behar bezala prestatu ez bada. Gainera, ikusle ugari biltzen da eta jendearen txaloak eta animoak norberak eman dezakeena baino gehixeago ematera ere bultzatzen du.

Lasterkarien lana, beraz, txalotzekoa da, baina baita antolatzaileena ere. Beste ospakizun eta festa guztiekin gertatzen den bezala, denoi gustatzen zaigu horrelakoak ikusi eta gozatzea, baina beti egon beharko du lan egiteko eta bustitzeko prest egonen den jendea. Horiek gabe ez genuke ez krosik, ez inauteri ez pestarik izanen; hauek, gainera, lasterkariek ez bezala, ez dute saririk edo jendearen txalorik jasotzen, nahiz eta merezi ere merezi duten. Marmari aldizkariak, beraz, egindako lanagatik zoriondu nahi ditu. Krosa antolatzen dutenak, batetik, baina baita trukean deus eskatu gabe herriaren-

tzat orduak ematen dituzten beste guztiak ere.

Eta lore partiketan gehiago luzatu gabe, erakuts ditzagun segidan 2003ko kroSean bildutako zenbait argazki. Esan behar da argazkiak ez dituela MARMARIK atera. Argazkiok, internet-eko www.pierdete.com helbidetik atera ditugu, "deportes" ataletik hartuta, eta hona ekarri ditugu, denon gozagarri. Ale batzuk aukeratu ditugu, baina askoz ere gehiago dira helbide horretan ikus litezkeenak, kendu ez badituzte behintzat.



Irteera. *Bat, bi eta hiru, goazen!* Aurrean “profesionalak” jartzen dira eta, egia esan, argazki hau ikusita ematen du atzetik milaka lagun abiatuko direla. Ez da hainbesterako, baina koadrilla polita biltzen da Leitzako krosean.



Lasterkariak aurrera, Egunkaria ere bai. Jaione bezalaxe, krosaren egunean beste batzuk ere oroitu ziren Egunkaria itxi zutela, baina, oztopo guztien gainetik, aurrera egin behar duela. Egunkariaren aldeko kamisetak eta pegatinak, ugari.



Bai fresko dagoela mutila! Jakina, oraindik proba hasi gabe baitago. Hasi baino lehen bertzea ere garrantzitsua da, oso komenigarria. Kilometroak eta minutuak pasatu ahala aurpegia aldatu egiten zaio, baina Fernandok badaki hori ongi eramaten, zalantzarik gabe.



Nork esan du Leitzako krosean ez dela sufritzen? Garaziren argazkiak erakusten digu baietz, ahalegina egin behar dela. Ez da harritzekoa, hala ere, ikusita atzeko tropeletik nola tiratzen ari den, eta ezin diotela jarraitu!



Hori da, hori, estiloa! Garbi dago arnasa ahotik botatzen duela. Ez dakigu nondik hartzen duen, baina lasterkari trebea dela jakinda, ziur gaude behar den tokitik hartzen duela.



Hauek, nonbait, ilarran joatea nahiago, eskolan bezala. Hai-zeari kontra egiteko edo? Erreleboak egi-ten ote dituzte?



I: Errealeko zale gazteak ere kro-sean lasterkari.

II: Baita Bartzelonakoak ere.

III: Ez du ematen asko kostatzen zaionik; aise doa neskatoa!

IV: Ikaragarria! Lasterka ez, hegan doa. Errepara ezazue ongi, lurra ukitu gabe doa eta!



Ikusten denez, Josebak ere serio hartu du krosa. Aurrera begira, serio, denbora kontrolatzeko ere erlojua jantzita badaezpada.




Lontxok ere badu kirolera-ko zaletasuna, behin baino gehiagotan erakutsi duen moduan. Gainera, irribarretsu agertzeko adina indarra ere badu.

MIREN

Esan bezala, Egunkariaren aldeko kamisetak eta pegatinak ugariak ziren. Mirenek ere, umoreaz gainera, egunkariaren aldeko atxikimendua garbi erakutsi zuen, kamiseta eta pegatina soinean jarrita.

**PELLO**

Hauek denak lurrera begira. Zer ikusi ote dute, 100 euroko billetearen bat edo? Pellok du abantaila billetea eskuratzeko, baina erne Iñakirekin! Tira, lurrera begiratzeko hori ziur asko kontzentrazioaren eta ahaleginaren ondorioa da

**POLDAR, LUZE, MUSUNZAR, SAENZ**

Hauek argazki-kamara ikusi eta posatzea erabaki zuten. Nondik atera zaie, bestela, horrelako profesional planta? Olinpiadetan daudela ematen du-eta!

POLDAR, SAENZ, LUZE

Hau, berriz, sinesgariagoa da. Kamara itzalita zegoela usteko zuten, ziur asko. Ah, aurreko argazkian lau ziren, eta honetan hiru. Non da bestea? Atzean geldituta, ezinean? Edo aurrera joan ote zaie, aspertuta?

**RAUL**

Azal zurikoa da, bai, baina planta Keniako lasterkariena dauka Raulek. Aurten ez zion aukerarik eman iaz esprintean aurre hartu zion lasterkari leitzarriari. Gupidarik gabe, aurrera joan zen eta bere martxan bukatu, ohi bezala, arin eta aise.

**TXOMA**

Gutako zenbatek sinatuko luke adin horretan krosean parte hartu ahal izateko moduan egotea? Eskuineko lasterkariak ari gara, noski, Txoma oraindik gazte eta sasoiko dago-eta.



TXISTEAK

Beste bi lagun juntatu dira, eta berriz hori ere triste, eta...

— Zer pasatzen zaizu Andres?

— Jo! Gaizki, gaizki. Koinatua hil zait.

— Joe! A ze bolada txarra daramaguna. Zuri koinatua hil, niri metxeroa galdu...

Ume bat etxean negarrez, eta...

— Zer pasatzen da, seme?

— Eskolan jo egin nauela andereñoak.

— Eta andereñoak jo egin zaituela? Eta zergatik?

— Galdetu dit Brasil non dagoen. Eta ez nekien, eta jo egin nau.

Hori aditu bezain pronto, aitak Jesukristoren pasada, diiii-daaa...

— Hurrengo batean hobeto gorde gauzak.

Bi bilbotar elkartzen dira, eta...

— Bilbotarrak... bilbotarrak gaituk, baina... la hostia gaituk bilbotarrak, e?

Eta esaten dio bestek:

— Zer ari haiz... Caceresen jaioa haiz eta.

— Motel, motel, bilbotarrok nahi dugun lekuan jaiotzen gaituk, e?

LIZARRAGA

Harategia

Tel.: 948 51 02 83

BULDAIN

agentzia inbiliaria

Amazabal 37 (eskola ondoan)

LEITZA (Nafarroa)

Tel.: 948 510534 / 649 47 66 15

Gaztea zara. Ospa ezazu!

NAFARROAKO  KUTXA

Esaiguzu nolakoa zaren eta zein pentsio komeni zaizun esango dizugu

CAJA LABORAL
EDUKATZEKUTXA

Herrian zure berri izateko modu onena duzu
Marmari aldizkaria, gainera merke-merke.

Aldizkari honetan iragarkia jarri
nahi izanez gero jarri gurekin harremanetan
948 51 08 14 telefonora deituta.

Arakindegia Jatetxea

Tel.: 948 51 00 52

EROSKOPOA



Aries: pauso handik emateko pauso txiki ematen hasi beharra dau. Ttipi-ttapa...



Taurus: ondokoai mañek itten badizkiozo, ondoren, zuk e jasoko dittozo.



Gemini: eun ona izanen da gaurkoa txiste zaharrak kontatzeko. Txispa horrekin...



Cancer: hainbeste kafe hartzen seitzen badozo nerbioak eskapatuko dizue.



Leo: hainbeste txokolate jaten badozo udan ez za trajebañoan sartuko.



Virgo: ezin al za asteburu baten parranda in gabe gelditu? Bai, badakizo ezetz.



Libra: arrisku gutxi hartu dittozo azkenaldin. Zahartzen aizan señaile!



Scorpius: buruko miñe jartzen bazaizo, ez seittu kalimotxoan eaten. Kendu bitako bat.



Sagitarium: denak goaz komonea eta denak hilko ga. Ez hasi oain zure konplejukin.



Capricornius: soziedadeko sozio in ziñen sukalden zerbatte ikasteko, baño.....



Aquarius: ez diozo beñe deuse oparitu iñorrei. Gaur kalenture al daukezo?



Piscis: ekologista zala bada- kit, beño illargire bizikletaz joan nahi izatea re....

zer diozu?

eta zuk,

Lidia Alkorta



- Zein da irakurri duzun azkeneko liburua? **La inteligencia emocional**
- Zerekin egiten dira odolkiak? **Txerriaren odolarekin**
- Zein da bota dizuten lorerik politena? **Aspaldian ez didate batere bota**
- Eta zuk bota duzuna? **Nik ere ez dut bota aspaldian**
- Zure etxean, nork egiten ditu etxe-ko lanak? **Denen artean (etxean galdetu behar!)**
- Zein da gutxien gustatzen zaizun lana? **Ontziak garbitzea**
- Zenbat diru gastatzen duzu hilean tabakoan? **Deus ez**
- Hitz egiten al duzu lotan zaudenean? **Nire ahizparen ustetan, bai**
- Zein da zure maniarik handiena? **Ez dakit (beste norbaiti galdetu beharko diogu!)**
- Eta bertuterik handiena? **Pentsatzen dudana esaten dudala**
- Txikitan zer izan nahi zenuen? **Andereñoa**
- Udako oporrak non pasako zenituzke? **Andaluzian**
- Eta non pasako dituzu? **Aukera izanez gero, Andaluzian**
- Telefono mugikorrera engantxatuta al zaude? **Oraindik ez (hemendik hilabete batzuetara galdetu beharko diogu)**
- Zein da Leitzan duzun txokorik gustokoena? **Arkixkil**

Asier Zabaleta

- Zein da irakurri duzun azkeneko liburua? **Kutsidazu bidea Ixabel**
- Zerekin egiten dira odolkiak? **Odola, tipula...**
- Zein da bota dizuten lorerik politena? **Gutxi izan dira eta ez naiz gogoratzen**
- Eta zuk bota duzuna? **Zure begiek liluratzen naute**
- Zure etxean, nork egiten ditu etxe-ko lanak? **Gehienak amak, baina nik ere laguntzen dut**
- Zein da gutxien gustatzen zaizun lana? **Nere gela txukuntzea**
- Zenbat diru gastatzen duzu hilean tabakoan? **Deus ez, ez dut erretzen**
- Hitz egiten al duzu lotan zaudenean? **Ez (ondoan dagoenari galdetu beharko diogu!)**
- Zein da zure maniarik handiena? **Azkazalak jatea**
- Eta bertuterik handiena? **Lagunekin parrandan ibiltzea**
- Txikitan zer izan nahi zenuen? **Ira-kaslea (biak ados jarri direla ematen du)**
- Udako oporrak non pasako zenituzke? **Kanariar irletan**
- Eta non pasako dituzu? **Italian**
- Telefono mugikorrera engantxatuta al zaude? **Ez**
- Zein da Leitzan duzun txokorik gustokoena? **Leitzelarreko izaiek**

